

hondo-hondotik

Itziar Lopategi eta Jone Goirizelaia

(Ezker Abertzaleko emakumeak)

Urrats berria Ezker Abertzale feministarantz

Jadanik, bi urte igaro dira Ezker Abertzaleko Emakumeen I. Nazio Batzarra burutu genuenetik. Jauzi garrantzitsua izan zen hura; izan ere, Ezker Abertzalearen estrategia egokitzea xedea zuen prozesua martxan jartzea erabaki genuen. Orduz geroztik, abiapuntutzat ezarri zen diagnostikoa egiten aritu gara. Emaitzak mahai gainean ditugula, gaur, Ezker Abertzaleko Emakumeen II. Nazio Batzarra egitera goaz. Oraingoan ere, topagune garrantzitsua dugu Ezker Abertzalearen proiektua konpartitzen dugun emakumeok, alegia, jendartegintzan, sindikalismoan, kulturgingintzan, politikagintzan, gazte mugimenduan, emakume mugimenduan... dihardugun emakume ezker abertzaleok.

Topagunearen gaia gu geu izango gara. Gu emakumeok, proiektu zehatz, aberats, iraultzailearen subjektu eragile izanik, zein toki duten gure emakume izaerak, identitateak, beharrek, ekarpenek, gizonezkoekin batera, gure egiten dugun ezker abertzalearen egitasmoan. Agerikoak al dira? Halaber, aztergai izango ditugu, hautatu dugun bidearen emaitzak, bereganatu dugun konpromisoaren exijentzia, burutzen ari garen lanaren garrantzia. Eta ez gara horretan geldituko, jauzi berriak emateko asmoz, aurrera begirako lan ildoak adosten eta zehazten ere arituko gara. Esan bezala, lan mardula gaur burutzeko duguna.

Abian jarri dugun prozesuaren eta emandako urratsen garrantzia eta tamaina ulertu ahal izateko, hein batean, iraganari begirada bota beharko genioke eta Ezker Abertzaleak nola bereganatu eta landu duen emakumeen borroka ikusi beharko genuke; bes-

teak beste, feminismo kontzeptuak Ezker Abertzalean izan duen dimentsio ideologikoa, nola barneratu eta landu dugun, zein antolakuntza bitarteko espezifiko zertu dugun eta beronek Ezker Abertzalearen proiektuaren baitan izan duen zeregina.

Horretaz guztiaz hausnarketa egin dugu eta hausnartzen jarraitzeko beta izango dugu topagunean bertan. Hori dela eta, ez da gure asmoa, orain, hemen erreparoa egitea; bai, ordea, Ezker Abertzaleak egindakoaren zenbait aipamen egitea. Ildo horretatik, lehenik eta behin, nabarmendu nahi dugu, Ezker Abertzaleak hasieratik, bere jendarte eta nazio askapen proiektu politiko estrategikoaren baitan, emakumeen eskubideen aldeko borroka integratu duela. Euskal feminismoz mintzatu ohi gara, gu euskal emakumeok, jendarte zehatz baten subjektuak baikara. Euskal Herriko biztanleriaren erdia, erdi askotarikoa, osatzen dugu, eta gure egoera eta beharrek ez ditugu gure herriak jasaten duen gatazka politiko sozialeki at kokatzen. Beronen baitan murgilduta bizi gara. Horrek ez du esan nahi, inola ere, gainerako herrietako emakumeekiko loturari uko egiten diogunik, alderantzizkoa baizik. Izan ere, errealitate geografiko, politiko, kultural eta sozial askotarikoek borroka feminista lokalei ematen dieten berezitasunaren gainetik, mundu osoan emakumeen eskubideen alde borrokatzen dihardutenekin bat egiten dugu, eta feminismoak munduko emakume eta gizon ororentzat eskaintzen duen alternatiba globala aldarrikatzen dugu. Beraz, ondorio bezala, Ezker Abertzaleak euskal feminismoaren kontzeptua mahai gaineratu duela azpimarratzen dugu.

Aurrekoarekin batera, aipatzekoa da ezker abertzaleak bide desberdinak arakatzeko joan dela emakumeen borrokaerako konpromisoa sendotzeko, indartzeko, bai mugimendu feministan, bai ezker abertzalearen proiektuaren garapenean. Zeregin horretan, emakumeen antolakunde autonomekin batera, erakunde politiko eta sindikalaren barnean bitarteko espezifikoak sortu izan dira (baita desagertu ere), proiektuaren koherentzia eta eraginkortasuna bilatzeko asmoz. Alde horretatik, antolakuntza esparruan jauzi kualitativoa eman dela aipatu beharra dago; Ezker Abertzalean, dagoeneko, ez dago emakumeen antolakunde autonomoa, ildo feminista txertatzea ardura izango duena. Horren ordez, Ezker Abertzaleak bere lan eremu desberdinetan emakumeen errealitatea jaso eta lantzen dela bermatuko duten bitartekoak jarri behar ditu. Etengabeko bilatze eta egokitze prozesua izan da eta izango da, alegia, prozesu dinamikoa fasez fase, eskarmentuz eskarmentu, ikuspuntu autokritikoz garatzen ari garena.

Gaur egun, erronka handia dugu aurrean, Ezker Abertzale feministarantz beste urrats bat egiteko prestatzen ari gara. Eta zer ari gara prestatzen, lantzen? Gure barnea, hau da, gure proiektuaren oinarria den militantzia, gure zutabe ideologikoak, gure lan eta funtzionamendu eredua, gure egitasmoarekiko konpromisoaren sendotasuna... Hori guztia zertarako? Helburu argi bat lortzeko:

eraikitzen dugun Euskal Herria emakume eta gizon langile libreen Herri libre izan dadin; eta besteak beste, euskal herritarrok egun ez dugun nazio identitate ezaugarri askotarikoak eta batasuna eskuratzeko, egun ez dugun jendarte eredu justu, lagunkide eta aniztasunean berdintzailea osatzeko, egun

ez dugun emakume eta gizonen arteko aukera eta eskubideen berdintasuna bermatzeko.

Urrats berria horretan datza, Ezker Abertzalea proiektu estrategiko integrala dela aldarrikatzea eta, aldi berean, gure ekinbidez bermatzea. Euskal Herriko emakumeok sistema kapitalista neoliberal patriarkal eta inperialista maltzuraren biktimak bagara, baina baita herri eta pertsonen arteko harreman lagunkide eta justuak bermatzea helburu duen proiektu berriaren aldeko borrokalari sutsuak ere.

Euskal Herriarentzat irekitzen ari diren aukerak pairatzen dugun gatazka politikoari irtenbide demokratikoa emateko, nahitaez, emakumeon esku-hartzearekin kontatu behar dute, ezin baita Euskal Herria eraiki biztanleriaren erdiaren eskubideei bizkarra emanik.

Gaur, gutariko bakoitzak badu bere alea gehitzeko denon artean ereiten ari garen Euskal Herri berriari.

Artikulu hau Lola Gomezek, Maitane Intxaurrek, Kizkitza Gil de San Vicentek, Mati Iturraldeek, Lurdes Rodriguezek, Milla Idiakenezek eta Aiora Epeldek ere sinatu dute

HELBURUA

Eraikitzen dugun Euskal Herria emakume eta gizon langile libreen Herri libre izan dadin da xedea

Maite Gonzalez Esnal

(Idazlea)

Eta haur horien aitak?

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburuak albiste gordina eman berri digu: Familia-Plan taxutu berriaren harrera hutsaren parekoa izan omen da. «Seme-alaben zaintza gizonarekin partekatatu behar dela barneratu ez dela ikusita, politika aldatuko dugu», aitortu du Azkarraga jaunak, etsita. Pragmatismoz erantsi du: «Akaso, aurrerantzean emakumeen esku jarriko ditugu orain arte gizonetzkoentzat zen laguntza». Ondo.

Ondo ez, oso gaizki. Euskal gizarteak lehengo lepotik burua. Berriz ere, argazki hitatu, horitu bat dugu begi aurrean, islada atzerakoia duena. Eta halere, ezin esan bestelakorik espero genuenik. 727 emakumek eta 50 gizonak (% 7) eskatu dute lanordu murrizketa, diru-laguntza baten truke. Baten batek esango lidake: berrogeita hamar gizon etxean gelditzeko prest ahia prestatzen edo pixoihalak aldatzen, ez da ahun-

tzaren gauerdiko eztula. Betikoa. Segun nondik begiratzen duzun, botila erdi hustua edo erdi bete irudituko zaizu. Sailburuaren hitz etsien arabera, administrazioak bestelakorik espero zuen. Gizonezkoen aldeko diskriminazio positiboa amarru erakargarria izango zela uste zuten nonbait, iraultza posible zela.

Baina bizitzak erakusten digu pausoka aldatzen garela, bat-bateko eta erabateko iraultzetan baino. Gizakiok ez gaude diseinatuak egun batetik bestera errotik aldatzeko, are gutxiago etekinik ez badugu ikusten. Eta are gutxiago etekina materiala ez denean, zenbatu eta ukitu ezin daitekeena. Hemen eta orain irauli egiten diren gauza bakarrak trenak, kamioiak eta tramankuluak dira, arimadun ez dena, egoaren tiraniatik libre direlako; gizakioi barrenak iraultzen zaizkigunean luiziak izateraino gaixotzen gara eta ezinbizi batean murgil gaitezke.

Gauzak horrela, ikusita zer gizon gutxi dauden prest euren haurrei hazten entzuteko —semea galdu zuen aita bati lapurtu diot metafora— honako galdera hau egin daiteke: zertan eman nahi dute denbora posfrankismoko gizonak? Gerra ondorengo belaunaldi mimatuari aspaldi eman genion amore, itxaropena gazteengan jarri genuelarik. Amorrurik gero baretuak ez digu eragozten ikustea gure amek, amonek, amaginarrek, izeba mojek zein zibilek, eta bizilagunek ere —salbu eta Errepublikako haize berritzailea arnastu zutenak— diskriminazio positiboan hazi zituztela inguruan suertatzen joan zaizkigun anaiak, senarrak, ilobak, lehengusuak, maitaleak... Laguntzaile primerakoa atera zitzaion patriarkadoari gizonak frontera joan eta frontetik etortzen ikusi ez zituzten emakumeekin. Galera-sentimenduak pentsamolde patriarkala (gizona oren gainetik) indartu

zuen, eta, hala, *Burdinaren zibilizazioaren* medio jarraitu zuen kateak estu lotzen. Obrero eta kontadore andana sortu ziren Arestik gogoratu zigun bezala. Eta garesti ordaindu genuen desoreka belaunaldi hartako emakumeok!

Hura joan zen, ordea. Orain beste borroka batean gabilta. %7koen garaian baikau-de. Baserritar patxadosoak belarra hazten ikusten duen bezala, horixe behar dute haurrek: nola hazten doazen entzungo dieten aitak. Ez jaiotze-tasa txikiak ondorio latza izan dezakeelako ekonomian, ezta oinarria sendotu ezean, adin-piramideak kometa errari bihurtuko zaigulako, jubilazioak arriskuan jarritik. Ez, ez da horregatik. Hemen jokoan dagoena demokrazia puru-puru da, ehunka aitak euren haurtxoen kontu egiten egundoko eragina izango bailuke lantokietan, sukaldeetan eta oheetan. Jaioko al dira haur horientzako aitak?